



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGPk astelehenetik aurrera ezarriko du Barik txartela sakelako telefonoaren bidez modu masiboan kargatzeko sistema

- **Hasieran, Google PlayStore-n aurkitu ahal izango da BGPre aplikazioa eta soilik erabili ahal izango da Android 4.0 sistema eragilea edo hori baino berriagoa duten NFC teknologiadun “smartphone”-tan. Baina, gero, beste sistema eragile batzuetan ere erabili ahal izango da.**

Bilbo, 2016ko otsailaren 26a.

Otsailaren 29tik, astelehenetik, aurrera Barik txartela sakelako telefono adimentsuen bidez kargatu ahal izango da. Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) “app” berri bat aktibatuko du Google PlayStore-n, eta txartelak kargatzeko milaka toki zehaztuta egongo dira bertan. “ctb.eus” estekan sartuta ere eskuratu ahal izango da aplikazioa. Aplikazioari esker, erabiltzaileak edozein Barik kargatu ahal izango du, nahi beste aldiz, edozein tokitatik eta eguneko edozein ordutan.

740 erabiltzailek arrakasta handiz probatu dute sei hilabeteen zehar (iazko uztailaren erditik aurrera) aplikazio esperimentala, proba pilotua egin zenean; baina, hala ere, erabiltzaile horiek proposatutako hobekuntza batzuk sartu ditu Garraio Partzuergoak. “App” berria azkarragoa izango da; sakelako telefonoen modelo gehiagotan erabili ahal izango da, bertsio elebiduna eskainiko du eta *V.me by VISA* bidez ordaintzeko aukera emango du.

Partzuergoak aurreikusitakoaren arabera, garraio-txartelak “on line” kargatuko dira; horretarako, NFC (Near Field Communication) teknologia aktiboa duen sakelako telefono “adimentsua” erabili beharko da, eta ordainketa segurua egiteko atebidearen bitartez ordaindu beharko da. Beraz, erabiltzaileak edozein tokitatik handitu ahal izango du bere txartelaren saldoa, edo Barik-en sar daitekeen garraio-txartel bat erosi ahal izango du, kargatzeko saltoki fisiko batera joan beharrik izan gabe. Manu Tejada Bizkaiko Garraio Partzuergoaren zuzendari nagusiak esandakoaren arabera, BGPre proposamen hau “gertaera teknologiko garrantzitsua da Barik sisteman, garraio publikoaren erabilera bultzatuko duena”.

Ticketing sistemen eremuan izaten diren azken aurrerapen teknologikoak, pixkanaka, Bizkaian ezarri nahi ditu BGPk; hain zuzen, proiektua BGPre politika horren barruan sartzen da. Orain arte, Barik txartelaren ohiko tokietan kargatu ahal izan da txartela (Metro Bilbao, Euskotren, Euskotran, Renfe –FEVE barne-, Larreinetako funikularra, Artxandako funikularra, Bilbobus eta Bizkaibuseko kabinak, tabako-dendak, kioskoak, merkataritza lokalak eta BBK-ko kutxazainak); eta abendutik aurrera webgunean bertan (ctb.eus) ere egin daiteke. Gaur egun 1,3 milioi Barik txartel baino gehiago daude zirkulazioan, eta txartelak kargatzeko 800 puntu baino gehiago aurki ditzakegu Bizkaia osoan.

Txartelak “smartphone”-aren bitartez kargatzeko proiektu honetan 96.000 euro inbertitu ditu BGPk. NFC teknologia duten Android gailuetarako aplikazio bat sortu da, eta horren

**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

bidez haririk gabeko komunikazioa eduki daiteke (irispen laburrekoa eta maiztasun handikoa) gailuen artean; kasu honetan, txartelaren eta sakelako telefonoaren artean. Eragiketa kriptografikoak eta Barik txartelak egiaztatze eragiketak ere jasotzen dira sisteman; hau da, ordaintzeko atebide segurua eta transakzioak berme osoarekin egiteko aplikazio egokiak ditu.

Proba pilotuan parte hartu duten erabiltzaileek balorazio oso ona eman diote diseinatutako ereduari. Horretarako, probaldian, 7.000 informazio-kontsulta egin dituzte eta txartelak kargatzeko 2.366 eragiketa egin dituzte (guztira, gutxi gorabehera, 34.237 eurokoak). 1 eta 5 arteko eskalan, partaideen % 54,3k puntuazio altuena (5) eman zioten txartelak kargatzeko sistemari; eta % 29,2k 4 puntu eman zizkieten. Baina, erabiltzaileen % 98,2k aplikazioa erabiltzeko gomendatuko liokete lagun bati. Proba pilotuko erabiltzaileen ekarpenei esker aplikazioa hobetu egin da, eta orain azkarragoa da.

Funtzionamenduari buruzko bideoa:

Euskaraz

<http://www.ctb.eus/sites/default/files/Barik2016Eusk.mp4>

Gaztelaniaz

<http://www.ctb.eus/sites/default/files/Barik2016Cast.mp4>